

«Soinu amerikarragoa du orain nire musikak»

Ana Pozas kantautore gazteak "Sin querer" diskoa kaleratu du. Pop-rock donostiarraren musika harrobitik irtendako azken perlatxoa da abeslari altzatarra. Aste Nagusian Trinitate plazan joko du. Harekin bildu da IRUTXULO, musikaz eta bizitzaz solasteko.



Alberto Elsoegi

Musikari gisa heldutasuna lortu duzu. Nola oroitzen dituzu hastapenak?

Samurtasun handiz oroitzen dut musikan hasi nintzeneko garaia. Gogor egin nuen lan estreinako diskoa kaleratzeko aukera izan arte. Lehen diskoak, gainera, harrera

ona izan zuen. Makina bat kontzertu eman nuen Euskal Herritik kanpo. Atzera begira jarrita, nostalgia handiz oroitzen dut sasoi hura. Baita poztasun handiz ere. Musikaren arloan hobetzeko, eta eszenatokia eskarmentua hartzeko ere ezinbestekoa izan zen.

Aurreneko diskoa intimista zen oso. "Sin querer" diskoa, ordea, oso ezberdina da. Musika estiloa propio aldatu duzu, ala garapenaren ondorio izan da?

Garapenaren ondorio izan da musika estiloaren aldaketa. Ez da alde zuzenetik planifikatutako zerbait izan. Horrexegatik jarri diot "Sin querer" izena diskoari. "Seguir viviendo" diskoak —nire lehen diskoak— ordura arte egin nuen guztia biltzen zuen. Arrakasta guztien sintesi modukoa, alegia. Taberna eta areto txikitan, ahotsa eta gitarra lagun, jo ohi nuen sasoioko espiritua islatu zuen. Azken sasoiaren, ordea, musika talde batekin aritu naiz jotzen. Hortaz, gogo handia nuen erregistroz aldatzeko. Gauza ezberdinak egiteak ere motibazio handia eragiten baitit. Nire burua probatu nahi nuen. Zer egiteko gai nintzen, eta noraino irits nintekeen ikusi. Zerbait berria egin nahi nuen.

Los Angelesen grabatu duzu diskoa. Rafa Sardina ekoizlearekin, hain zuzen. Nolako izan da esperientzia?

Oso esperientzia aberasgarria izan da niretzat, benetan. Musikaren alorrean, aurreko diskoan izan ez nuen aukera izan dut. Rafa Sardinaren mailako musika aditu batekin bi hilabete eta erdi pasatu ditut buru-belarri estudioan. Asko ikasi dut. Musika master bat bezalakoxea izan da.

Zure hitzek maitasuna dute ardatz. Kantautoreei atxiki ohi zaien konpromiso sozialaren arrastorik ez dago.

Pertsona moduan daukat nik konpromiso soziala. Ez konpositore moduan. Are gehiago, pentsatzen dut guztiok izan behar harko genukeela konpromiso soziala eremu horretan, behintzat. Hitz konprometitua ere izan badituzte. Baina, azkenean, ez dituzte disko berriari sartu. Dinamika bat apurtzen zutela pentsatu nuelako. Dena dela, aurreko diskoan kutsu sozial argia duten kantak badaude. "Sonrie", esate baterako. Baina egia da maitasunezko abestiak direla nagusi, behar bada, azken diskoan. Ez dut hori nahita bilatu, ordea. Bestalde, bere uztako hitzak eta musika

Kate motzean

Film bat: "Cinema Paradiso" (Giuseppe Tornatore)/ "Les invasions barbares" (Denys Arcand).

Abesti bat: Silvio Rodriguez-en "Ojalá", Pedro Guerraren "Deseo", ...

Liburu bat: Frida Kahlo-ren biografia bat irakurtzen ari naiz orain. Oso interesgarria da.

Hiri bat: Lisboa.

Esaldi bat: "Joaten ez den oro, galdu egiten da"

Oroitzapen bat: Eskolako garaiak.

Desio bat: Etxebizitzaren prezioa jaitsi dadila, arren!

kantatzen dituen delakantautore uste dut. Victor Jara, Silvio Rodriguez eta Pedro Guerra bezalako kantautore konprometitua daude. Baina, David Bowie eta Alejandro Sanz ere kategoria horretan sailka daitezke.

Zure abestiek tonu malenkoniatsua duze. Maitasunari buruz baino, maitasun ezari buruz hitz egiten dute.

Win egiten dizunaren inguruan idazten duzu beti. Arrastoa uzten dizun horren inguruan, nolabait. Hala dela uste dut, bederen. Zoriontsu zarenean, ez duzu idazteko ahiturarik izaten. Maitasuna bizi egiten duzu. Nolanahi ere, maitasunari nahiz maitasun ezari buruz ere idazten dudana orietakoa nauzu.

Zeintzuk dira zure eragin nagusiak musika arloan?

jasoi berri honetan soinu amerikarragoa du nire musika, ez bairik gabe. Erreberentzia asko erabili ditut. Sheryl Crow eta Michelle Branch moduko musikarierak, batik-bat. Avril Lavigne ere kontuan hartu dut. Soinu amerikar horren bila nengiz, egia esan. Ez abesti juztietarako, beharbada. Baina, bai gehientsuenetarako. Rafa Sardina ekoizlearen laguntza ezinbestekoa zan zait soinu hori lortzeko. Maila handiko soinu-ingeniaria ere baita bermeotarra. Besteak beste, Sheryl Crow, Celine Dion eta Michael Jacksonekin lan egin izan du. Bere lan-erperientzia handia bermea da.

Alex Ubago abeslari donostiarrak kolaborazio txiki bat du "Sin querer" diskoan.

Asko maite dut Alex Ubago. Estimatu han-

dian dut. Primeran moldatzen naiz berekin, gainera. Baita haren gurasoekin ere. Disko bat grabatzeko borrokan ari ginen garaian ezagutu genuen elkar. Eta gure ibilbidea paretsua izan da. Alexen proiektzioa nirea baino askoz handiagoa izan bada ere. Miresten dudana pertsona da, eta berak disko honetan emaniko laguntza oso berezia izan da niretzat.

Topo egin al duzu inoiz zure disko batekin "Top-manta" delako horretan?

Aurrekoan Madrilan izan nintzen. Kale izkin batean gazte bat zegoen disko-piratak saltzen. Hurbildu nintzaion, eta salgai zituena diskoen artean nirea ikusi nuen. Diskoie begira geratu nintzenez gero, bi euroren truke nahi nuena hartzeko gonbita

egin zidan. Saltzen ari zen diskoetako bat nirea zela esan nioenean, ezin zuen sine-tsi. Hasieran broma bat zela uste zuen. Barre egin niolako-edo. Benetan ari nintzela ohartu zenean, motxilan sartu zuen nire diskoa. Ziurrenik, handik desagertu bezain pronto, salgai jarriko zuen berriro. Baina, jende horrek, azken finean, ez du errurik. Errudun bakarrak diskoak kopiatzen dituzten mafiak dira.

Euskaraz abesteko asmorik izan al duzu inoiz?

Ez dut hizkuntza behar bezala menperatzen. Gaingintza beharreko ikasgaia dut euskara. Euskaltegian izena eman nuen iraitlean, baina utzi behar izan dut azkene-

an. Klaseetara joateko astirik ez nuelako. Azkenaldi honetan oso lanpeturik nabil. Baina urte libre bat hartzen dudanean, burubelari ekingo diot euskara ikasteari. Horixe da nire asmoa. Dena dela, bira honetan euskal gramatikako liburuxka bat daromat nirekin. Eta, aldika, errepasotxo ematen diot.

Gustuko duzun euskal musikaririk bada?

Mikel Urdangarin oso gustuko dut. Asko atsegin dut egiten duena. Klasikoak ere maite ditu. Mikel Laboa eta haren belaunaldi-koak, bereziki.



Alberto Floresgi

"Kantautore bezala baino, pertsona bezala dut nik konpromiso soziala"

"Euskalgintzaren lekukoak"

• ELKAR • Joxe Manuel Odriozola • 448 orrialde

Euskal nortasunaren eta euskaltasunaren krisia Estatu modernoaren izaera nazional totalitarioak eragindako hondamendi orokorrean kokatzeko eta ulertzeko saioa da liburua. Azken hamarkada hauetan euskalgintzan jardun duten euskaltzaleen pentsamendua bildu, eta ideia horiek elkarren ondoan ipiniz, gogoeta sakona dakarkigun egileak. Euskalgintzan pertsona ezaguna da Joxe Manuel Odriozola idazlea. Pasaiaiko Udala Euskaltegi irakasle dabil egun, eta soziolinguistikari buruzko lanak argitaratu ditu, batik-bat.



araitalmenak